

PuLunPe

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA


173. Zenbakia



HITZ BAT IZOZKAILUAN

Hitz bat
isiltasun guztien aurka
zarata honen guztiaren erdian
apaindurarik gabe
bakarrik
izozkailuan itsatsita
zeinen ezgauza
absurdua da aipatzea ere
zeinen ezgauza
hitz bakar bat
baina diozu etorri
eta banoa

IÑIGO ASTITZ
“BAITA HONDAKINAK ERE”





“Lurrera botatzen duguna gure gorputzera dator bueltan”



Baratza prestatzeko garaian gaude. Belar txarrak kendu, lurrari buelta eman eta ereite garaia. Eta soro handietaz gain, etxeko baratzetan geroz eta ohikoa-goa den praktika batek kezta sortzen du, herbizidak erabiltzearena.

Jakoba Errekondo, “Bizi Baratzea” liburuaren egi-learekin mintzatu gara honen inguruan aritzeko, eta bereziki, produktu kimikoen aurrean zer egin galdetzeko.

Produktu izarra dago merkatuan “belar txarrak” baztertzeke, glifosfatoa, eta Monsanto multinazionala da jaun eta jabe. Hainbat herrialdetan debekatua dago honen erabilera, eta Europar Batasunak ere hala egin behar zuen, baina 10 urtez lehenbizik eta 5 urtez gero luzatu egin du produktu honen erabilera.

Zenbait herrialdetan hegazkin bidez botatzen dute glifosfatoa, soroez gain, bertako biztanleen gainean ere botaz. Baina eskuz botata ere, eta lur zati txikian, ondorioak oso kaltegarriak izan daitezke osasunerako. Zientifikoki frogatuta egon ez arren, ebidentzia ugari daude jada glifosfatoak sor ditzakeen gaitzez,

minbizia besteak beste. Eta baratzean botatzen ditugun gainontzeko produktuek ere eragin zuzena daukate gure gorputzetan. Izan ere, produktu horiek gorputzera eramaten ditugu barazkiak jatean.

Belarraren aurkako produktuez gain, intsektu zein gaitzen aurkako produktu asko erabiltzen dira gurean, eta Jakoba Errekondok alternatiba naturalen berri eman digu:

Intsektuak eta beste animaliak uxatzeko:

Baratxuria (azenorioaren eulia, orkatzak eta porruaren harra uxatzeko), asuna (armiarmak eta luhartza uxatzeko), asentsio-belarra (azaren harra, bareak, barraskiloak, harrak eta zorriak uxatzeko), perrexila, huntza, intsusa...

Intsektuak akabatzeke:

Aurrekoez gain, tabako-belarra, zolda-belarra, azeribuztana, mota-belarra, tipula, xaboia...

Gaitzen aurkakoak:

Salda bordelesa, sodio bikarbonatoa, esnekiak, propolioa edo ur oxigenatua.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Itziar Perez Argomaniz

Maketazioa: Lur Gil Rey

Tirada 1.600 ale | Inprimategia: Gertu

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Martxoaren 28an bidalia

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

Erakusketa / Exposicion

Del 14 al 28 de Mayo / Maiatzaren 14tik 28ra

Zonaldeko Ehorziti lanak, Paleak biziklitzaren, Tailerak familian eta eguneko taila taldeen obrak. Obras de los grupos de Bolillos, Reciclaje de palets, Talleres en familia y talla de madera de la zona.



HORMARA

PINTXO POTE
2€
OSTIRAL
ETA
LARUNBAT
GUZTIETAN
20:00etatik
21:30etara
AIZAROKO OSTATUAN

Glizerinazko xaboia egiteko tailerra

xeheetasunak
Aurretik izena eman
948604704
Prezioa: 3€ materiala ordaintzeko

eguna
Maiatzaren 17 ostirala
ordua
17:00etatik
lekua
Larrazaleku Olatu etxean

Antolatzailea:
Larrazaleku Miramonteko
948604704

18:00 Larraintzarko liburutegian

11

EUSKERAZ



Aurorita beti polita Lur Korta Ipuinkontalaria

Aurorita munduan zehar dabilen neska kaskarin eta bihurria da. Beti alai! Beti ipuin kontari! Bere maleta bitxiarekin azaltzen da edonora doala, eta bertatik ipuinak kontatzeko hainbat gauza ateratzen ditu, luma bat, untzi bat... Mailetarik gabe ezin da bizirik bere bihurrikarien artean gustokoena, bisitatzen duen leku bakoitzetik zerbaite eramatea da.

Aurorita es una chica alegre y divertida, a la que le encanta contar cuentos. Siempre va con su particular maleta, en ella lleva una pluma, un conejo... No puede estar sin su maleta y le encanta llevarse algo de cada sitio.

18:30 ATEZKO Izarpe KANPING

18

EUSKERAZ



Talo tailerra - Taller de Talo

Jarduera honetara jende guztia gonbidatzen dugu: haurrek, gazteak, helduak, beren artopila egin dezaten. Dibertigarria, entretenigarria eta gozosa izanen da. Artopila baseerietako oinarritako elikagai izan zen XX. mendeko lehen erdiko arte, baina ohitura galduz jian zen gariz eginko ogia zabalduz joan ahala. Gaur egun, artopiak prestigioa irabazi du, oinarritako elementua izateki festa giroko egun berezietan jatera paratu da.

En esta actividad, invitamos a toda la gente: público infantil, juvenil y adulto a elaborar su propio talo.

Sesú divertido, entretenido, y sabroso. El talo, hasta bien entrado el siglo XX, fue un alimento elemental de la dieta en los caseríos, pero con la panificación del trigo, se fue perdiendo la costumbre. Actualmente, el talo ha ganado prestigio, ha pasado de ser un elemento esencial a ser preparado y consumido en ocasiones especiales, festivas...

19:00 Larraintzarko Bentan

25

GAZTELERAZ (CASTELLANO)



Charla- Hitzaldia / Biofertilizantes - Jesus Eslava

Sobre elaboración de preparados para el suelo y las plantas, biofertilizante, caldos minerales, fertilizantes sólidos... En la naturaleza, las lombrices, artrópodos y raíces son especialistas en hacer este trabajo de laboreo, de forma más eficiente. Si observamos y comprendemos el proceso de regeneración de suelos que realiza la naturaleza, podremos crear las condiciones necesarias para acelerarlo.

Lurtzoria ongarritzeko moduei buruz, hala nola, ongarri biologikoak, salda mineralak, ongarri solidoak... Naturan, zizareak, arthropodoak eta sustraiak dira modu eraginkorrago batez lurra ongarritzeaz arduratzen direnak... Naturak lurzorua birsortzeko egiten duen prozesua behatu eta ulertzen badugu, prozesu hori azkartzeko behar diren baldintzak sortu ahal izanen ditugu.

19:30 Larraintzarko Bentan

30

Kontzertua - Concierto

Coral Amati - Zuzendaria / Director: Patxi Martin.

Concierto fin de curso Coral Amati Abesbatza, Se interpretarán obras de distintos estilos y autores. Kurso bukatuan Amati Abesbatzaren kontzertu bat emango digu egile eta estilo desberdinetako kantuarekin.



BIZITZA AMAIERAKO ERABAKIAK
Bizi-Testamentua, Heriotza Duina, Sedazio Aringarria, Eutanasia...
DECISIONES AL FINAL DE LA VIDA

HITZALDIA
Pilar Larralde Zandio (Osasun etxeko gizarte langilea)
Raquel Garcia Bosque (Ertzaina)

Maiatzaren 18an, ostirala
18:30etan
Oihanzabal eskolan

Antolatzailea:
Kulturaren Baita

euskarazko internet eguna
interneteguna.eus

10.000ra goaz
BAZATOZ!

ekitaldia
MAIATZAK 17
17:30 MIRAMON PARKE
TEKNOLOGIKOA

eus
NEW
UEU



XI. BASABURUKO BTT

Charla
Specialized 30'

2 Bilbideak / 2 rutas: Motza / corto: 25 kms.
Luzea / largo: 35 kms.

Maiatzaren 20an / 20 de Mayo
Lekua / Lugar: Jauntsarats
Ordina / Hora: 9 etan



Prezioa / Precio: No federado: 20 €.
Federado: 15 €.



Auzo-inkulzioa / Preinscripciones:
Informazioa / Informacion: www.kinorobak.com

Inskulzioaren eguna: 7-45ak - 8-45ak / Inscripciones en el día de 7-45 a 8-45

Laban sailkatzeak serie egonen dira. Parte hartzaileak arazo teknikoak eta bestelako oparirik ez dutenak dira lasterlari berrak.

Premios para las primeras personas clasificadas. Serán entre participantes, de una bicicleta y varios regalos más al comienzo de la carrera.

Basaburuko bikotekako I. Partxis bazkaria

Maiatzak 12 - Orokietan

menua:

Pitxoak-Musa-Olajak-errea-Marrubi brema
izena emateko orokietan



15€

besten. edo:

681 04 69 09

948 92 33 74

INSKULZIO SULTIAK. Orokietan besten 5€ bikoteko
izena emateko AZKEN eguna- MAIATZAK 9. ASTEAZKENA.



bazkari-egunka benera 2 lagunentzako



Saltxitxoi benera



BASABURUKO EGUNA 2018

EKAINAK 2



Udako Eskaintza 2018



aek udako
plazer txikiak
pequeños placeres de verano

Euskara ikastaroak
Cursos de euskera



HITZALDIA / CHARLA

Biometanizazio plantaren
inguruko ikerketa
batzordearen ondorioak
Adolfo Araizen eskutik

Maiatzak
11 Mayo
19:30
Zentro
zibikoa

eh
bildu
Utzama

EUSKARALDIA

ULTZAMAKO UDALA

UDAL INFORMAZIOA
INFORMACIÓN MUNICIPAL

2018KO UDALDIAN IGERILEKUKO
TABERNA EMATEKO KONTRATAZIOA

Eskaintzak 2018ko MAIATZAREN 19ra arte
aurkeztu ahaliko dira udal bulegoetan.

Horretarako onetsi den baldintza adminis-
trazioaren pleguan interesa duten pertsona eta
entitateen esku egonen da udal bulegoetan edo
ultzama.eus web orrian.

2018 URTERAKO DIRU LAGUNTZAK,
SORMEN ARTISTIKO-KULTURAL ETA
JARDUERA FISIKOETARAKO

Utzamako udalak irabazi asmorik gabeko en-
titateentzako, elkarlanean edo norbanakoent-
zako sormen artistiko-kultural eta jarduera
fisikoetarako 2018 urterako diru laguntza deialdia
alera berri du.

Eskaintzak 2018ko MAIATZAREN 4tik EKAI-
NAREN 23ra arte aurkeztu ahaliko dira udal
bulegoetan.

Udal bulegoan eta ultzama.eus web orrian
informazio gehiago.

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATZO DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugi@gmail.com"

Arduradun bila txatar artean



Iraizoko biogas plantren inguruko Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordea amaitu da, eta gobernuko laukoteak 93 ondorio biltzen dituen txostena aurkeztu eta parlamentuan onartu egin du. Orduko Ultzamako Udala jotzen du arduraduntzat, Patxi Perez buru, baina Bioenergia Ultzama eta Levenger enpresek ere ardura zuzena dutel ondorioztatzen da. Hala ere, epaiketara bideratuta ere, ez du ondoriorik izanen, delituek preskribatu egin baitute.

Gu planta barrura sartu gara, honen egoera bertatik bertara ezagutzeko. Askok esaten zioten bezala, herdoilez beteriko txatar pilaketa bat baino ez da laku hori, eta behin motorrak salduta, diru gutxi balio du han dagoena, dirurik balio badu. Egungo egoeraren lekuko izan gara erreportaje honetan.

Kontratuaren esleipena

1 Plantaren proiektua 2006an jaino zen. Purinak kudeatzeko bide ugari egon arren, horiek guztiak baztertu eta bakarria jarri zuen mahai gainean Patxi Perezek, Levenger teknologia erabiliz funtzionatzen zuena. Teknologia horrek Victovice enpresa txekiarraren ekogenerazio motorrakibiltzen zituen, eta horretaz jakitun omen zen Patxi Perez.

2 Purinen kudeaketa udalaren eskuetara pasa zen, eta enpresa pribatu batek kudeatzeko lehiaketa egin zen laster. Bi enpresa aurkeztu ziren lehiaketara, eta horietako batek, Levenger enpresak eskuratu zuen kontratua. Enpresa hau lehiaketatik kanpo geratu behar zen legalki, bi arrazoiengatik: 1. Plantaren aurre-proiektua erredaktatu

zuen Levengerrek, eta beraz, beste enpresak baino informazio gehiago zeukan. 2. Ez zen beharrezko kapital sozial minimora iristen (%20 behar da, eta ez zen %2ra iristen).

3 Kontratazioa, horretarako beharrezkoa zen denbora minimoa igaro gabe egin zen, udalbatza gaueko hamaiketan amaitutako egunean bertan.

4 2008an kontratazio prozedura berri bat asmatu zuen Udalak, Levengerren kontratazio irregularrak justifikatzen zuena.

5 2008an "Ingenieros Ayerdi" enpresari esleipen bat egin zitzaion, baina ez dago dokumentatuta, eta idazkariak ezin izan zuen justifikatu



Diru-laguntza bikoiztuak

1 Lan bera egiteagatik bi diru-laguntza kobratzen ziren, landa garapen arlokoa eta industria arlokoa. Bi arlo hauetako teknikariak bisitan ibili ziren plantan, egun ezberdinetan.

2 Bi faktura aurkezten zituzten lan bera egiteagatik, bata Levengerrena eta bestea Bioenergia Ultzamarena. Levengerrek ez zituen sekula lan horiek gauzatu, eta honek kobratutako diru-laguntza gehigarria Bioenergia Ultzama hartzen zuen, Levengerren kontratazioaren truke. Horrela, planta bideragarri izatea lortu zuten, behar baino diru-laguntza gehiago kobratuz.

3 Diru-laguntza horiek jasotzeko, Udalaren parte-hartzea ezinbestekoa da. Gainera, Patxi Perezek sortze prozesuan ari zen enpresa baten izenean (Bioenergia Ultzama) sinatu zuen.

4 Patxi Perez Atez, Basaburua eta inguruko abeltzainak konbentzitzen aritu zen mankomunitate bat eratzeko, eta horren bidez diru-laguntzak jaso. Baina ez zen inongo mankomunitaterik sortu, Ultzamak kudeatzen zuen purina eta Ultzamak kobratu diru-laguntzak.

5 Zein zen helburua? Planta bideragarria izan zedin, ahalik eta diru-laguntza gehien kobratu behar ziren. Izan ere, planta eraikitzeke hasierako inbertsioa diru publikotik zetorren. Eta plantaren esplotazioaren finantziatorako energia elektrikoa saltzen zen. Hasieran funtzionatu egin zuen, baina hainbat estatu dekreturen bidez, energia elektrikoari tasa berriak ezarri zitzaizkion. Horren ondorioz bideragarritasuna amaitu egin zen.

Plantaren sekuestroa

1 Bioenergia Ultzama enpresa hartzekodunen lehiaketan dago orain, bazkideek, abeltzainek, hala eskatuta. Egun ez dago enpresa bideragarria egiten duen txostenik, Patxi Tornariak eskatutako txostenean, plantaren funtzionamendu normalerako milioi bat euro behar zirela aipatzen zen, eta dirua irabazten hasteko 2 milioi euroko inbertsioa egin behar zen.

2 Plantaren bizitzaren azken garaian, Patxi Perez Nafarroako tokiko administrazioiko zuzendaria zen, eta Iruñerriko Mankomunitatea plantaren kargu egiten saiatu zen. Bideragarritasuna aztertzeke txosten bat egin zen, eta 5 aukera posible ondorioztatzen zituen. Horietako 4 ez ziren bideragarriak, eta bosgarrenak "ibilgailu gasa" ekoiztea eskatzen zuen. Mankomunitatea kargu egingo balitz, bere ibilgailu guztiak erregai horrekin ibiltzeko eraldaketak egin behar zituen, eta horrek diru inbertsio handia eskatuko luke. Ez da ziurra Mankomunitatea halako inbertsio handi batean sartuko zenik.

3 Caja Navarra eta Rural Kutxak kredituak eman zizkieten Bioenergia Ultzamari, eta Sodenak abalak jarri zituen. Entitate hauei ez zaie dirurik itzuli.




Herdoila nonahi aurkitu dugu eraikinean zehar. Makineria gehiena ez dago erabilgarri



Deposituetako bat. Urez hustu ostean, orain belarretan dagoen hare pila hori agertu zen, oiloen ximaurra botatzearen ondorioz



Plantaren beste ikuspegi bat. Estalpea hautsirik eta lurrean belarra hazita



Ultzamak errugbiaren etxea izaten jarraitzen du



Beste behin ere, gaupasa antolatu zuen Larraintzarren BRT errugbi taldeak. Baztan eta Ultzamako taldeari babesa eta laguntza emateko gaupasa antolatzen duten hamabosgarren urtea izan da, eta urteko zita garrantzitsuenen artean lekua egin du Ultzaman. Ultzama aldetik, Malerrekatik, Baztandik, Xulapaindik edo Iruñerritik etorritako jendea bildu zen Ultzama pilotalekuan. Urtero bezala, zikiro afaria izan zuten, baina lehenxeago Los Tajudos del Norte taldearen emanaldia. Afalostean Oharkabe, Skabidean, Tirri&Tery eta Los Muga taldeen kontzertuak izan ziren, eta gaueko ordu txikiak arte parranda.



Ixiar Braco, Sevillaren aurkako partidan

Maialen Marturet Espainiako selekzioan

Lizasoko gaztea dugu lerro hauetako azken protagonista. Izan ere, La Unica taldeko jokalaria honek Espainiako 18 urtez azpiko selekzioan aritzea lortu zuen. Frantziako Vichy hirian jokatu-tako Europako txapelketan aritu zen ultzamarra, eta lehen aldia da estatuko selekzioan aritzen dela. Lan handia egin ostean lortu du saria, Maddi Braco herrikideak jada lortua zuena ere. Beraz, argi dago Lizason errugbian aritzeko lehengai ona dagoela, emakumezkoen artean bereziki.

La Unica ohorezko mailatik gertu

Azken urteetan bezala, ohorezko mailara igotzeko fasea jokatu du aurten ere emakumezkoen La Unica errugbi taldeak, eskualdeko ordezkari ugari dituen. Baina joan zen urtean bezala, ezinezkoa izan da helburu hori lortzea, aurkari gogorak izan baititu zelaian.

Lugo eta Zaragozako taldeen aurka gailendu ostean, finalaurrekoetara igaro ziren nafarrak, baina Sevillako talde indartsua izan zuten aurrean, eta amore eman behar izan zuten. Euskal Herrian maila bikaina izan arren, hemendik kanpo oso maila altua dago.



Maialen Marturet, goitik eta ezkerretik hasita, bigarrena

Aritzu protagonista Nafarroa Xtreme mendi lasterketan



sartu da aurten Nafarroa Xtrem, AlpinUltras zirkuitoan, eta honen ondorioz, estatuko korrikalaririk onenak etorri dira. Eta argi geratu da, emakumezkoen eta gizonezkoen errekorra egin baitute lasterketa luzean irabazle izan diren Silvia Triguerosek eta Raul Perezek.


Maratoi erdiaren irteera Aritzun

Berrikuntza polita izan dugu aurten, distantzia berria, 21 kilometroko lasterketa. Aritzun izan zuen irteera, Aitor Iraizotz, antolakuntzako kide eta Aritzuko bizilagunak zerikusia izanen du afera honetan, noski. Iluntzean atera ziren herritik, eta gauez iritsi Zubiriko helmugara maratoi erdia egin ostean.

Distantzia honetan eskualdeko hainbat korrikalari izan ditugu: Jose Mari Itoiz Goñi (34. sailkatua), Maria Iraizoz Cires (51.), Oscar Iraola Lopez (52.), Jesus Aginaga Ruiz (54.) eta Tomas Goikoetxea Martin (101.).

Oсотara 708 korrikalarik amaitu zituzten lasterketak, 68 eta 33 kilometroko lasterketek 300 korrikalari izan zituen bakoitzak, eta 100 pasatxo 21 kilometrotakoak.

Korrika ez, baina argazki kamera eskutan ibili zen Amaia Urdaniz ari-tzuarra, eta bere bi argazki dira ikusgai dituzuenak.



Distantzia luzeko lasterketa honen hirugarren ekitaldia izan da aurtengoa, eta inoiz baino maila handiagoa egon da. Lasterketak Esteribarko Zubirin hasiera duen arren, Lantz eta Anueko inguruetatik igarotzen da, eta aurten ere hala izan da 68 kilometroko lasterketan. Distantzia luzeko lasterketen zirkuitoan

Kulturaren Viana Printzearen Saria, Iruñeko Ganbera Abesbatzarentzat

Etxalekuko alaba den Sagrario Aleman zegoen 8 hautagaien artean, baina azkenean Iruñeko Ganbera Abesbatzari eman dio saria Nafarroako Gobernuak. “72 urtez jarraian herritarren alde lan egin da”, Teresa Catalan Nafarroako Kultura Kontseiluaren musika arloaren bozeramaileak azaldu duenez. Bestalde, Ana Herrera Nafarroako Gobernuaren Kultura kontseilariak taldeak abangoardia musikalaren bidetik egindako apustua azpimarratu du. Saria emateko ekitaldia maiatzaren 26an ospatuko da Erriberriko Errege Gazteluan.



Istripua Latasan, ondorioz zauritu bat ospitalera eraman dute

Zauritua Iraizotzko 21 urteko emakumea da eta Nafarroako Ospitalera eraman zuten. Istripua maiatzaren lehenengoan gertatu zen, goizeko ordu 2:00ak aldera, NA-411 errepidean, Latasan. Zaurituak gidatzen zuen autoa bidetik atera eta aparkatuta zegoen beste auto bat jo zuen, biak etxe baten kontra talka eginez. Aldi berean, atzetik zetorren beste auto batek kalte hartu zuen istripuaren elementuen kontra jotzeagatik.



Bizilur azoka ekainean itzuliko da Iruñeara



Ekainaren 30ean ospatuko du udako azoka Bizilur proiektu agroekologikoak. Udaberriko bigarren edizioa jada apirilaren 7an egin zuten, nahiz eta euriak ez zuen lagundu. Bertako landa produktu ekologikoak hiriko biztanleei hurreratzeko antolatzen dute, eta Egozkueko Marta Pérez ekoizleak bere 'Loperena' gazta eraman zuen. Orreaga etorbidean jartzen du bere postua eta eguraldi kaxkarra egin zuen arren, erdialdean egonda, jendea hurbildu zela dio: "jendea harritzen da, komentarioak oso onak dira, horrelako feria gehiago nahi dituzte; ekoizleari bertan, zuzenean, erosteko aukera izateko".

Horregatik ekainaren 30ean udako azoka prestatu dute, leku berean, eta hilabete horretan bertan, 2an, Alternatiben Herria-n topagunean ere egongo dira, Iruñean ospatuko dena.

Urtebete darama Marta Pérez Bizilur proiektuaren barnean, hemengo produktuak, transgeniko eta pestizidarik gabekoak, bultzatzen dituen ekimena. Esnekiak, xaboiak, barazkiak, barraskiloak, hestebeteak eta pateak, landare apaingarriak, ogia eta gozoak, haragia, pasta, arrautzak, olioia edota ezta ekoizten duten Nafarroako 20 produktore biltzen ditu.



Altsasuko auzia izan da Entzutegi Nazionalean



Altsasukoak Aske plataformak egindako erakusketa Basaburuan eta Ultzaman egon da martxo eta apirila bitartean. Ikusgai izan dugu azkenik Apeztegiberriko ganbaran apirilaren 17an eta 18an. Bienbitartean hasi zen epaiketa Madrilen, 16an hain zuzen ere, eta egun batzuk luzatu da maiatzaren 4a arte, epaiaren esperoan gaude orduz geroztik. Altsasuko 8 gazteentzat, 12 eta 62 urte bitarteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak, terrorismo egotzia berretsi baitu. Epaiketa baino lehen, apirilaren 14ean, 50.000 lagun bildu ziren Iruñean Altsasukoak Aske eta Altsasu Gurasoak deituriko manifestaldian.

Euskara hutsezko haur eta gazte udalekuetarako diru-laguntzak



Ekainaren 1etik irailaren 28ra arte eskatu daitezke eta 2018ko udan burutuko diren euskara hutsezko udalekuetan parte hartuko duten haur eta gazteei zuzenduta daude. Gastuaren %40ko laguntza izanen da gehienez, beti ere, udalekua 5 egun baino gehiago eta 15 egun baino gutxiago irauten badu. Halaber, haurra edo gaztea derrigorrez LHko edo DBHko ikaslea izango da, Euskara Zerbitzua osatzen duten udalerrietako batean erroldatua egongo da urtebete lehenagotik eta ekainaren 15etik irailaren 30a bitarteko epearen barnean egongo da udalekuan.

“Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoaren bigarren zozketa maiatza bukaeran

Kattalin Agirreurreta, Ihabengo alaba, izan da apirileko zozketaren irabazlea, 39 laguneren artean, eta 30 euroko txeketa erabili dezake liburudendan eus-

karazko liburuak erosteko. Claude K. Dubois-en *Akhim ihesi* liburuak irakurri zuen, izan ere, horretan datza “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoak: euskarazko liburu bat Ultzamako liburutegian hartuz gero, fitxa bat bete eta liburu bat erosteko %35eko deskontua jasotzeaz gain, zozketan parte hartu dezakezu. Maiatzaren 31an bukatzen da egitasmoa, eta orduan egingo dute bigarren zozketa, beraz, animatu zaitetzte!



Euskaraldia antolatzeke lanak martxan



Azaroan ospatu nahi da Euskal Herriko bazter guztietan. Helburua 11 egunez euskaraz egitea da, azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte. Euskaraz hitz egiten duen, edota ulertzen duen edonork parte hartu dezake, izan ere, bi rol ezberdin daude. Alde batetik, ahobizi gisa eman daiteke izena, euskaraz hitz egingo dugunaren adierazpen; Bestetik, belarri-prest gisa, hitz egiteko ez baina euska-

raz ulertzeko gaitasuna duenak. Horrela, sare moduko bat sortu nahi da, euskararen erabilera bermatuko duen sarea. Martxan jartzeko, dozena bat lagun bildu dira eta maiatzaren 10ean, Larrantzarko bentan, jardunaldi bat prestatu dute. Bertan, eskualdea girotzen ikasteko ariketak landuko dituzte: norengana jo, gaia nola azaldu, e.a. Deialdia irekia da, helburua jende gehiago taldean sartzea ere baita.

De Rerum Natura



@Zaldieroa

Miguel Iraizoz Nafarroako emakumezko lehen rally gidariarekin

Lehen aldiz arituko da emakume bat "RAC Vasco-Navarro" kopan. Berako Banesa San Juan Baquero da rally gidaria, Lesakan bizi dena, eta laguntzaile lanetan Eltzaburuko Miguel Iraizoz izanen du, Ultzamako rally gidari ezaguna.

Maiatzaren 5ean izan zuten lehen lasterketa, eta Miguel Iraizozek esan digunez, lehenengo txandan urduri atera bazen ere, lan ona egin zuen. Bigarren txandan oso denbora ona egin zuen, Ford Focusaren gidaritzan gaitasun handia erakutsiz, eta hirugarrenean ezin izan zuen gustora gidatu, eguzkia aurrean izan baitzuten eta bidea ikusteko zailtasunak izan zituen. Pozik ageri zen Miguel Iraizoz egindako lasterketarekin eta laguntzaile bezala hasitako etapa berri honekin.

Ez da ohikoa emakume bat rallien gidaritzan ikustea, baina denbora asko da Banesa giro honetan murgildua dagoela. Laguntzaile bezala aritu izan da askotan, eta baita lasterketen antolakuntza lanetan.

Asier Lekuona bikote eta rally gidariak, Artiga Motorsport taldeko kudeatzailearen auto batekin ari da, eta aipatu bezala, luxuzko laguntzailea dauka, hainbatetan kopa honetan lehiatu eta txapeldunorde izandako ultzamarra. Gertutik jarraitu beharko ditugu.



Miguel eta Banesa, Ford Focus autoarekin



Maiatzaren 5ean Errioxan izan zuten lasterketan

Errenta aitortpena euskaraz

Ekainaren 22ra arte abian dago errenta aitortpena egiteko kanpainia, eta UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, aurten ere euskaraz egiteko deialdia egin du. Hiru bide ezberdin daude aitortpena egiteko: autolikidazio proposamena, mekanizatua eta internet bidezkoa; guztietan egin daiteke euskaraz. Autolikidazio proposamena onarzerakoan, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean Ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu. Mekanizatua egiteko hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu Ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula, sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

Azkenik, interneten errenta programa euskaraz jais-teko aukera duzue. Kanpainaren bitartez, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezten bultzatu nahi du UEMAK. Horrela, errenta aitortpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da.

Errenta aitortpena Euskaraz

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:

- Autolikidazio proposamena egiteko, Ogasunarekin hitzatu behar duzu. Autolikidazioa onartzen badute, Ogasunak agiriak bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA:

- Ogasunarekin hitzatu behar duzu, Ogasunarekin hitzatu behar duzula esan behar duzula.
- Ogasunarekin hitzatu behar duzula esan behar duzula.
- Ogasunarekin hitzatu behar duzula esan behar duzula.

INTERNET BIDEZKOA:

- Errenta aitortpena egiteko, Ogasunarekin hitzatu behar duzula esan behar duzula.
- Ogasunarekin hitzatu behar duzula esan behar duzula.
- Ogasunarekin hitzatu behar duzula esan behar duzula.



Ekainaren 4an itxiko dituzte tunelak

Argitu da Belate eta Almandozko tunelen hobetze lanen auzia. Tnelak ixteagatik kalte-eragina izanen luketen bailaretan protesta ugari egin ostean, Nafarroako Gobernuak erdi-bideko irtenbidea onartu du: nazioarteko ibilgailu astunak Belateko mendatetik igaro daitezke, baina ibilgailuen erdia baino ez. Matrikularen zenbakiaren arabera pasa ahalko dira kamioiak aste batean edo bestean.

Ekainaren 4tik 10era bitarteko astean matrikula bakoitza duten ibilgailu astunak baino ezin izanen dira ibili. Astero-astero, matrikula zenbakiaren arabera, txandakatuko dira neurriak. Hala, ekainaren 11tik 17ra matrikula bikoitidunak baino ez dute pasatzerik izanen. Besteak beste, zerbitzu publikoa eskaintzen duten autobusak eta eskumenez araututako ibilgailuak salbuetsiko dira. Aitzitik, ekainaren 4tik azarora bitarte txirrindulariak eta bertatik pasa daitezkeen kirol ekitaldiak egitea debekatuko da.



Idiazabal saria jaso du Dorrea gaztandegiak

Ordiziko artzai egunean eman zioten Udabeko Dorrea gaztandegiari erregulartasun-kalitate saria. Euskal Herrian Idiazabal gazta ekoizten duten 120 gaztandegien artean izan zen aukeratua Udabekoa.

Izan ere, Basaburuko gaztandegia da Euskal Herrian Idiazabal gazta gehien ekoizten duena, eta aurten 400.000 kilo ekoiztuko dutela esan zuten gaztandegiko arduradunek. Euskal Herriko 170 artzaini erosten diote esnea, eta mundu osoan saltzen dute.

2000. urtetik hona ez da asko igo Idiazabal gaztaren ekoizpena, eta gora-behera batzuen ostean, 130.000 kiloko zifraren inguruan geratu dela ematen du. Gaztandegien kopurua ere ez da gehiegi mugitu, nahiz eta 2010etik hona beheranzko joera nagusitzen den.



Iritzia: "Bareak letxugan"

Bare txiki bat aurkitu dut garbitzen ari nintzen letxugan, eta, aizue, ilusioa egin dit. Nazka pixka bat eman ere bai, noski. Baina ilusioa, hori ez zitzaidalako gertatzen erosketak supermerkatuan egiten nituenean. Hozkailua ere gehiagotan garbitu behar izaten dut

barazki freskoek uzten dizkidaten lur arrastoengatik. Baina pozik nago kontsumo taldean izena eman eta ostiralero barazki bete saski hartzen dudanetik. Ederra baita norberak ahoratzen duena bertakoa eta ekologikoa dela jakitea. Batzuetan nekagarria suerta daitekeen arren.

Nekagarria baita, egia da, borraja, patata, letxuga, ziazerba eta porruz elikatzea luze joaten ari zaigun negu honetan. Baina, aizue: eguzkirik ateratzen ez den bitartean horixe izanen da gure lurra emanen diguna. Eta udan gusturago janen ditu-

gu tomateak, zaporedunak, eta ez plastikozko itxura daukaten horiek, auskalo nondik eta nola ekarriak.

Naturaltzat hartuak genituen kontsumo ohitura asko zalantzan jartzea dakar berriro bertakora bueltatzeak. Ulertzea, adibidez, ezin dugula jan nahi duguna eta nahi bertze, nahi dugunean. Konprenitzea naturak urtarroak dauzkala bai, etorriko da udaberria, eta bere erritmoak, eta mugak. Desenkapritxamendu ariketa bat dakar, eta irudimenezkoa ere bai: pentsatu behar izateak zer berri presta dezakegun lurra ematen digun le-

hengai agian mugatuarekin. Konpromiso bat ere bai: jan behar izateak dagoena gure poltsikoak agian bertze zer edo zertarako aukera izan dezakeen arren; bestela saskikoa ustelduko zaigunez...

Baina bizipoz bat ere ematen dit niri, aldi berean: jakiteak hein batean guri esker biziko dela inguruotan bizirautea hain nekeza duten laborari guti horietako bat gehiago, gure asterokotasunagatik ez balitz agian merkatura joateari utziko liokeena. Negua luze doa, baina gustura segituko dut bareak topatzen letxugan. Laster etorriko da udaberria.



Maddi Ane Txoperena
BERRIA egunkarian

Aritzu, zu Anuera eta ni Nuorora

Aritzuk biki bat daukala jakin dugu, Anuetik urrun xamar dagoen bikia, 1300 kilometrotara, hain zuzen ere. Nahiz eta bertakoek Aritzu esaten dioten, Aritzo da bere izena, eta Sardinian Nuoro probintzian bisitatu dezakegun herria da. Dena den, ez dira antza duten biki horietakoak, Sardinian Aritzu, Anuekoa baino gehiago hazi da urtetan, eta 1400 biztanle ditu gaur egun.



Juan Martin Elexpuru, euskal filologoa, bertan egon da, eta horrela deskribatu digu herria: “Sardinian erdi-erdian dago Aritzo. Aritzo eta Aritzu, bi eratarik esaten diote. Harizti baten erdian dago eta bertakoek ez dakite izena hortik etorri dakiokenik. Kasualitatez berdin idazten dira, sardo hizkuntzak ‘tz’ ere erabiltzen baitu. Etimologikoki argi dago esanahia: haritz asko dagoen tokia, haritz izenaz eta ugaritasuna adierazten duen -tzu atzizkiarekin osatua”.

Elexpuruk ‘Euskararen aztarnak Sardinian’ argitaratu zuen aurreko urtean eta liburu horretarako ikerketa egiten ari zela bisitatu zuen Aritzo: “Leku ederrean dago, mendialdean, hotelak ere badaude. Mendi nahiko altuak daude eta garai batean elur zuloak zeuden eta izotza saltzen zuten, oraindik jarraitzen dute tradizio horrekin, izotz-edariak tipikoak dira. Mural eder bat ere badago, tradizio hori erakusten duena. Interesgarria izango litzateke jumelaje bat egitea eta bi Aritzuren artean anaitasuna sinatzea, Anueko Udalaririk proposatu dakiokel!”.

Euskararen aztarnak Sardinian

Baina, nola da posible hain urrun dauden bi herri, izen bera izatea? Juan Martin Elexpuru 2010. urtean ohartu zen euskara eta sardoaren arteko loturaz, beste autore

batzuen teoriak irakurri ondoren. Sardinian toponimian, lexikoan eta fonetikan antzekotasunak iragartzen zituen, eta horretan sakontzea erabaki zuen. Batez ere, Eduardo Blasco Ferrer katalanaren hildoa jarraituz.

Datubaseak begiratu ondoren, euskal toponimoen berdinak edo oso antzekoak diren 350 leku-izen aurkitu zituen Sardinian. Honetaz gain, osotara berdinak ez, baina euskal hitzen oso antzeko elementuak ziztuzten 4.000 toponimoen zerrenda egin zuen. ‘Haran’ edo ‘lur’ hitzak bere barnean ziztuztenak, adibidez. “Oso adierazgarriak dira leku izenak, baita bere falta ere. Hau da, konparazioz, Sardinian antzeko 4.000 izeneko zerrenda bat badaukagu, eta Sizilian, esate baterako, ez badugu ezer topatzen, edo oso gutxi, horrek zerbait esan nahi du. Ezin da kasualitatea izan. Toponomia altxor bat da”, dio filologoak.

Dirudenez, paleo-sardinianen aztarnak lirateke hauek, gaurko erromantze sardinierara pasa direnak, erromatar inperioaren ondorioz hizkuntza galdu ondoren. Eta paleo-sardinianen euskararekiko antzekotasuna, nondik dator? Eduardo Blasco Ferrer katalanaren ikerketek diotenez, duela 8.000 urte migrazioak egon ziren Euskal Herrietik Sardinian. Zehazki, erromatarrek Barbaria deitzen zuten sardinian eskualdera, Aritzo kokatzen den eskualde menditsura. Migratutakoen eta hango biztanleen arteko kontaktuak lagundu omen du antzekotasun horiek sortzen, eta Euskal Herrian bezala, orografiak lagundu du elementu horiek mantentzen.





Zalantzak, zalantza, hipotesi sendoa

Hitzaldi mordoxka ematen ari da Juan Martin Elexpuru, batez ere, kultur elkarteek gonbidatuta. Azkenekoa Erroman bertan, unibertitatean. Alderdi horretatik pozik dago, baina faltan botatzen du lekua gure hedabideetan: “aurkezpen egunetik aparte, Argiakoa eta Pulunpekoa dira pape-reko hedabideetan ateratako artikulu bakarrak. Euskal Herrian sektore ofizialetik badago erresistentzia, horrelako nobedadeei leku bat emateko, unibertsiteen partetik, esate baterako. Ez du harrera handirik izan hizkuntzalaritzaren aldetik. Hala ere, txalo handirik jaso ez dudan arren, ez dut ezezkorik jaso ere ez. Hain agerikoa da, non ezin daietekeen kontrako argudiorik eman. Ez da inor atera hau aluzinazio bat dela esateko. Beraz, optimista naiz”.

Orokietara eta Oroquieta, biki gehiago munduan zehar





Munduko beste eskualde batean Aritzu deituriko beste herri bat aurkitu dezakegula esan dugu, baina ez da antzeko kasu bakarra gu-rean. Ba al zenekien Filipinetan Oroquieta deituriko hiri bat dagoela? Mendebaldeko Misamis eskualdeko hiriburua da, ia 60.000 biztanle dituena, eta Mindanao deituriko irla batean kokatzen da.

Jatorria Basaburuako Orokietan dago, noski. Zehazki, Filipinetan XIX. mendean apaiza izandako Tomás Casado orokietarrak eman zion izena. Filipinetako Layawan parrokiara zegoelarik, izena aldatzea lortu zuen: Layawan ordez, Oroquieta. Filipinetako gobernadorea eta Basaburuako Orokietako markesa zen Domingo Moriones y Murillo omentzea zen helburua, Orokietako guduan karlistak garaitu zituelako 1872. urtean.

Hain zuzen ere, Oroquieta filipindarretik bisita izan genuen Basaburuan, pasaden urtean. Igande batean bi atzerritar sartu ziren Orokietako ostatuan, taberna huts hutsik zegoenean. Han lanean zegoen Xima Zubillaga Puignaurekin berriketan egon ziren eta honako hau kontatu zioten. Estatu Batuetan bizi zirela, batak txinatar jatorria zeukala eta besteak filipindarra. Izan ere, Oroquieta zuten aita eta Donostian turismoa egiten ari zirela, Orokieta hurbildu zitzaizkigun, herria ezagutzeko.





“Nire kuadernotik atera nahi izan ditut marrazkiak eta istorio berri bat kontatu, nirea bakarrik ez zen istorio bat”

Maite Mutuberria Larrayoz eltzaburuarrak argitaratu berri du Lohia, bere azkeneko ilustrazio eleberria. Besteak beste, Leire Bilbao, Ander Izagirre edota Iñigo Astiz idazleekin batera lan egin eta gero, bakarrik egindako lehenengoa. Bi urteetan, grafitoz egindako marrazkiez osatutako liburua da, norberaren hitz jokoekin eta baita Rilke edota Virginia Woolfen aipuez josia. Jada 20 proiektutan egin du lan eta sari ugari eskuratu ditu:



Bakarrik egindako lehendabiziko liburua, nola sentitu zara?

Egia esan oso gustura egin dut. Idazleek testuak bidaltzen dizkidatenean, eta zerbait polita egin dezakedala ikusten dudanean, oso gustura ere egiten dut lan. Baina, kasu honetan, batez ere liburuaren osotasunean pentsatu dudalako, oso polita izan da prozesua. Liburuari zer antolaketa eman, zer mezu bidali nahi nuen, zer papera erabili, guztian pentsatu dut nik neuk. Gainera,

ilustratzaile lana ez dut apaingarri gisa ikusten, komunikazio lana dela ulertzen dut, nire burua egile gisa ikusten dut.

Grafitoz egindako marrazkiak, bat-batekoak dirudite, horrela al da? argitaratu aurretik ez dute lanketarik izan?

Liburuaren jatorria koadernoan egindako marrazkietan dago. Bolada ilun batean nengoela, marrazkiak egin nituen koaderno batean eta hori izan zen nire ihesbidea. Aurrerago, marrazki horiek hartu nituen eta liburu forma eman nion. Nahi izan nuen nire koadernotik marrazki horiek atera eta istorio berri bat kontatu, nirea bakarrik ez zen istorio bat. Nahiz eta liburu forma hartu, bai mantendu nuen bat-batekotan hori, badirudite zirriborroak direla, egilearen izaera eta sentimenduak argiago azaltzen dutelako, espresibitate eta intimitasun hori. Lana, gehien bat, konposizioaren aldetik izan da: zer ordena eta zer narratiba eman, hau da, lehen zentzu handirik ez zuenari zer zentzu eman.

“ Jendea harritu egin da aurreko lanen estiloaren oso ezberdinekoa baita Lohia eta ez zuten espero, baina agian inkontzienteki hau da gehien ateratzen zaidan estiloa, nire koadernoetan erabiltzen dudana, hau naiz ni”

Aurreko lanekin konparatuz ezberdinak dira, bai kolorearen aldetik, bai materialaren aldetik, zeren arabera aukeratzen duzu marrazkiak egiteko estiloa?

Estiloari buruz asko galdetzen didate, normalean asko aldatzen dudalako lan batetik bestera. Hain zuzen ere, hasi nintzenean, nik nire estiloa aurkitu behar nuela gomendatu zidan ilustratzaile batek. Beti gogoratzen dut gomendio hori zeren niri ez baitzait estilo bakarra ateratzen. Liburuaren arabera teknika eta tresnak aldatzea atsegin dut, horrek ere laguntzen naudelako istorioa kontatzen. Lohiarekin jendea harritu egin da aurreko lanen estiloaren oso ezberdi-






nekoa baita, eta ez zuten espero, baina agian inkontzienteki hau da gehien ateratzen zaidan estiloa, nire koadernoetan erabiltzen dudana estiloa, nirea sentitzen dudana. Agian jendeak beste lan batzuk identifikagarriagoak ikusten ditu, baina nire ustetan, hau naiz ni.

Marrazkiekin batera hitz jokoak eta aipuak daude, Lohiak mezurik helarazi nahi al du? bizipen pertsonal batetik ateratako mezu unibertsal bat?

Testu gutxi batzuekin jolastu dut, irudia eta testuaren arteko dantza hori sortu nahian. Testuak irudia irakurtzen laguntzen zaitu, beste irakurketa bat egiten, eta alderantziz. Guzti hori amaieran etorri da. Mezuarena... batzuetan galdetu didate ea terapia modukoa izan den, eta nik ez dut horrela ikusten, baina liburuak bai lagundu dit zer gertatu zaidan ulertzen. Hitz horiek jartzerakoan, adibidez kontrazalan dagoen testua, izena eta izana eman nahi izan diot. Guzti honen atzean dagoen



mezua hau da: guztiek daukagu lohia barruan eta lohi hori ez dugu zertan garbitu behar. Baina ez dut 'autolaguntza' moduko liburu bat egin nahi izan, ez da hori, baizik eta nire bizipena kontatu, nola ikasi dudana lohi horrekin bizitzen, nik uste dut guztiek daukagula lohia eta egin dezakegun gauza bakarra da horrekin bizitzen jakitea eta ez hori garbitzea.

Hitz joko horietako bat, adibidez, Arrakasta-Arrastaka da... artista baten beldurrik handienetakoa sormen krisia pairatzea izan daiteke, zure kasuan, ordea, sormena izaten da momentu txarrei aurre egiteko tresna?

Orain ikusten dut ondorioa liburu hau egitea izan dela, eta oso pozik nago horregatik. Baina momentu hartan,

koaderno hori egiten ari nintzenean, bai sentitu nuen krisia, lanak ez zitzaizkidan nik nahi nuen bezala ateratzen. Adibidez, teknikarekin frogatzen asko egin nituen eta ez nuen estilo berri hori topatzen. Gero liburuarekin topo egin dut, baina ez da bilatua izan.

Aurkibidean ikusi daiteken modura, azalean barrena egindako bidaia dirudi liburu... Oso gutxi egiten al dugu hori gure gizarte honetan?

Norbait horrelako bolada bat pasatzen ari bada zerbait txarra dela ulertzen dugu. Ez daukagu gaitasunik gertatzen zaiguna ulertzeko eta horri hitzak jartzeko. Nik barrurantz sartzeko prozesu moduan bizi izan dut, nire zaurian sartzeko prozesua, lur geruzan sartuko banintz bezala: geroz eta likatsua, lurrean hasten gara, bertan hankak dauzkagu, baina geroz eta korapilatsua bihurtzen da, eta amaieran hautsa dago, gure amaiera eta hasiera. Lohian sartzea bezala ulertu dut, denok daukagun lohi horretan.

// "Guzti honen atzean dagoen mezua hau da: guztiek daukagu lohia barruan eta lohi hori ez dugu zertan garbitu behar"

Hain zuzen ere, irakurlea identifikatua sentitu daiteke zure marrazkiekin, emozioak oso grafikoki adierazten baitituzu, adibidez, sabela goitik bera irekia eta harriz betea duen pertsonaia, ez al da horrela?

Bai, gustatuko litzaidake norbaitek liburu ikusi eta identifikatua sentitzea. Azken asteetan beldurra sentitu dut hau partekatzeagatik, elkarrizketetan, eta batzuen emaitza ikustean ez naiz gustura sentitu. Baina norbaitek esaten didanean identifikatua sentitu dela, horrek bai laguntzen dit. Hala ere, nik ez dut uste liburuaren helburua hortik ateratzen laguntzea denik, baina bai niri hau pasa zaidala ikustean, irakurlea ulertuta sentitu daiteke, ez dagoela bakarrik, neurri batean lagundu dezake.

Eta nork bere burua ezagutzeko prozesu horrek lagundu al dezake zauriak ixten?

Nik uste baietz, ez dut esan nahi gauzak beltzak edo zuriak direnik, baina ba-


tez ere zauri horrekin bizitzen ikasten lagundu dezake. Ni, adibidez, ziurrago nago nire buruarekin, egiten dudana-rekin. Ez dut esan nahi inposatutako 'be happy' lelo hori, baina, nik ikasi dut zauriak josten, ez ixten, baina bai josten.

Euskaraz eta Gazteleraz argitaratu duzu Lohia, zure lanean bi hizkuntzak uztartu dituzu, zer garrantzia



dauka euskaraz zure bizitza profesionalen eta kulturaren zer leku gustatuko litzazuke izatea?

Ni Madrilen bizi izan naiz 7 urtez eta bertan gazteleraz lan egiten nuen, beraz, gazteleraz ongi moldatzeak lagundu dit. Baina nik uste euskaraz gehiago lagundu nauela, Euskal Herrian kultura merkatu handia dago, eta Madrilen nongoen arren, Euskal Herrian hasi nintzen lanean. Euskaraz hitz egiteak eta euskal idazleen testuak jasotzeak lan eman dit, eta gainera oso gustura egiten dut lan euskaraz. Horregatik erabaki nuen liburu hau bi hizkuntzetan egitea. Argitaletxea Errioxakoa da eta beraiek ez zuten euskaraz argitaratzeko beharrik ikusten baina nik apustu hori egitea nahi izan nuen. Alde batetik, nire ama hizkuntza delako, eta bestetik, uste dudalako euskal merkatuari zor diodala. Nik, etorkizunari begira, euskaraz lan egiten ikusten dut nire burua, noski.





ARDO FREXKOTIK

Zeinen erraza den euskaraz erakustea!


lazko ekainaren 25ean hil zen Esteribarko Leranotz herrian bertako *Perikoneko* nagusia, Joaquin Maria Lusarreta Lintzoain, 79 urtetan. Herri honetako azken euskalduna.

Horrela esaten zidan bere lehengusu zen Don Emilio Lintzoain Muskizko apez izandako eugiarrak:

-*Biño, gu bezalaxe aitzen zen euskias, gu bezalaxe! Ederki aitzen zen, ta aise!*

-*Eta nola ikasi zun ba ordurako Leranotzen euskia azkenetan zenian eta zekitenak ere ibiltzen e'tzutenian, jatako e'tzula balio ta? Eta iñorekin aritzeko erarik ez zunian gainera?*

-*Gaztettotarik bere osabarekin artzai ibilli eta honek beti-beti euskias egiten omen zion.*



Haurrekin bederen, ari beti-beti-beti euskaraz! Inoiz ere ez erdaraz!

Artzai honek teoria ez zekien, hizkuntza bat nola erakusten den eta horrelako kontuez, baina praktikan nola behar zen bai. Bere ilobak ikastea nahi zuen eta horretarako aritzea bezalakorik ez izaki. Hori bai, **beti, beti euskaraz** egiten zion eta "guk bezalaxe ikasi zun".

Gauza hain erraza izanik, gaurko egunean hor ikusten ditugu zenbait guraso beren umeaz ari delarik:

-*Bai, erdaraz kontestatzen dit.*

Eta umea hor ikusiko duzu zuk zerbait galdetzen badiozu: trakets eta aldrebes. Eta motel. Beste era batera esateko, dakien pixka hori euskara baldin bada... jai dugu!!

Artzain honek ez zekien teoriarik baina praktikan 10 atera zuen. Eta bere ilobak dotore ikasi zuen euskaraz. "Guk bezalaxe", Don Emiliok zioen bezala.

Beldur naiz oraingo guraso aunitzek praktikan suspentso direla. Baina teorian? Teorian ere zero dira, tamalez, uste baitute, noizbehinka hitzen bat, esalditoren bat euskaraz bere seme-alabei egin eta ikasten dela.

Ikaragarria da, ni behintzat ikaturik nago, erdaldunak besterik ez ditugu sortzen; karrika guzietan haurrak erdaraz ari dira, alde guztietan erdara besterik ez da entzuten... euskara hiltzera doa.

Eta nik diot, ez al zarete ohartzen oker eta makur ari zaretela? Ez al zarete ohartu zuen umeek euskaraz ez dakitela edo zerbait baldin badakite hizkera aldrebes, nahasi, eta euskafiola besterik ez dakitela? Gaizki egosi gabeko ogia baino txarragoa eta digeri ezina? Elkarrekin mintzatzeko balio ez eta erdarara pasatu beharra besterik ez dutela izaten gizagaixoek?

Zuen umeak euskaraz aritzea nahi baldin baduzue, erraza duzue: Don Emiliok erakusten digun teoria erraz hori ikasi behin betiko: **beti-beti euskaraz egiten omen zion**. Ez du inongo misteriorik. Mailukarekin behar bada ere, sartu buruan esaldi bakar hori: **beti-beti** (inoiz ez erdaraz).

Eta praktika ere badakizue: Artzainak erabili zuena. Hau zailxeagoa da, baina aspaldiko artzain batek egiten zuena, zuek ez al dezakezue egin? Borondate kontua da.



“Inguru honetan jarduera ekonomikoren bat duen ororekin aliantzak egin nahi ditugu”

Argazkian ezker-eskuin agertzen dira Alfonso Serrano Perez-Nievas, Fernando Arriazu Liberal, Marisol Calzado Onieva, Marta Gaston Valenzuela eta Ainhoa Gaston Valenzuela. Azken hau kenduta, beste lauak Aroztegiako biztanleak dira, eta martxoaren 11an ireki zuten Izarpe kanpina. Orain arte eguzkia bidelagun izan ez badute ere pozik ageri dira lehen bi hilabete hauetan bizitakoarekin. Guk, kanpinak turismoarekiko suposatzen duena alde batera utzita, bailararendako daukan balioaz aritu nahi izan dugu Ainhoarekin, biztanleengan arreta jarritz.

Zer balorazio egiten duzue orain arte?

Oso sentrazio onak ditugu, bereziki bailarako jendearen partetik jaso dugun erantzunaz. Izan ere, orain arte, hona etorri den jande gehiena inguruko herrietakoa da, eta asko etorri eta bahin baino gehiagotan etorri dira. Jatexea izan da hobekien funtzionatu duena, eta dendari arrankatzea kosta egin zaio, jendeak ez baitaki denda bat dugunik ezta nolakoa den. Eta gure helburua Atezko bizilagunei denda zerbitzua ematea da, Iruñera joan beharra izan ez dezaten, hemen Iruñeko prezio berean erosiz.

Lan ugari izan duzue hasiera honetan ezta?

Bai, igerlekua oraindik amaitzen ari gara, eta beste hainbat kontu txiki. Administrazioan eta jatetxean lan ugari ari gara izaten, eta bost lanpostu sortu ditugu, orain hamar partsona ari baikara lanean. Inguruko langileak kontratatu ditugu jatetxerako, mantenurako eta garbiketarako.

Eta bailarakideendako kultur eskaintza egin duzue.

Bai, astebururo ari gara haurrendako animazioarekin. Eta beste hamaika gauza ditugu pentsatuak, bereziki eguraldi ona hasten denerako: kirol kontuak, musika, inguruak eza-gutzeko paseoak... Eta gela handi bat daukagu jatetxearen gainean, yoga eta halakoak izateko probestu nahiko genukeena, jendea Iruñera aldera joaten baita horretarako.

Aldaketa handia suposatzen du kanpinak Atezko biztanleentzat.

Aldaketa nabarmena da, bai. Biztanleek elkargune bat dute orain, erosketak egiteko leku bat, eskaintza kulturala, laster igerilekua... eta oso balorazio positiboak jaso ditugu.

Eta dendan, esaterako, inguruko produktuak dituzue.

Hori izan da hasierako helburua. Ez soilik inguruko ekoi-zileekin, inguru honetan jarduera ekonomikoren bat duen ororekin aliantzak egin nahi ditugu, elkarri lagundu behar diogula uste dut, denok aurrera egin ahal dezagun. Produktuei dagokienez, inguruko aurrau-tzak, gazta, esnekiak, haragia... ditugu, eta gainontzeko produktu asko oso prezio merkean.



“Ez nuen uste jendeak hainbeste babestuko ninduenik”

Azaroaren 3an egin zuen debuta Peio Etxeberria ultzamarrak (Zenotz, 1998). Inflexio puntu hori hartuta, iraganaz eta etorkizunaz galdetu nahi izan diogu, eta baita abeltzaintzaz ere, bere ofizioaz. Lasai eta patxadatsu erantzun dizkigu galderak, Larraintzarko pilotaleku aurrean -debutaren lekua- euskaraz izan dugun elkarrizketa mamitsuan:

HASIERAKO URTEAK

egon naiz bertan, oso-oso pozik.

Noiz hasi zinen pilotan aritzen?

Txikitatik aritzen nintzen herrian. Eta Aritz Begino Ultzamako pilotari profesionala genuenez, afizio gehiago hartzen genion gazteok. Larraintzarren entrenatzen hasi nintzen sei urte nituela, eta bizpahiru geroago, hemen jende askorik ez zegoenez, Uharteko taldera joan nintzen, eta orain arte

Noiz hasi zinen maila hobean jokatzeko?

Kadete mailan, esaterako, euskal ligako finala jokatu nuen Gasteizen. Baina bereziki, “biharko izarrak” txapelketa daukat gogoan inflexio puntu bezala, hura irabazi bainuen. Orduetik, gehiago entrenatzen hasi nintzen, kanpoko jendea ezagutzen... 16 urte nituen, eta lehenengo txapelketa garrantzitsua izan zen.

Eta noiz ikusi zenuen profesioaletara igarotzeko aukera zenuela?

Beno, txikitatik izaten dugu nahi hori, telebistan profesionalak ikusten ditugu eta hori da helmuga. Aukerak ez dira galdu behar, eta egunen batean gerta daiteke.

Noiz izan zen?

15-16 urterekin Aspe eta Asegarce enprekin entrenatzen hasi nintzen, inongo konpromisorik gabe, eta hilabeteen behin baino ez. Nekeza izan zen, eta handiegi geratzen zitzaidan hasieran. Eta duela urtebete enpresen txapelketa bat jokatzeko deitu ninduten, afizionatu mailakoa. Gauzak ongi atera zitzaizkidan, nahiz eta finala galdu. Beranduago, urrian, nire urtebetzetik gertu jaso nuen deia, profesioaletan hasteko esanez. Momentu horretan oilo ipurdia jartzen zaizu. Hor hasi zen etapa berri hau.

PROFESIOALETAN DEBUTA

Nola izan zen ordutik debuta arteko denbora?

Bi enpresek deitu ninduten, batak lehenengo eta gero besteak. Pentsatzeko denbora hartu nuen. Nerbioz beteriko egunak izan ziren, sinatu arte ezer ez baita segurua. Behin kontratua publiko egin zenean oso polita izan zen, babes eta animo pila jaso nituen.

Nola bizi izan zenuen debuta?

Hodei batean nengoen egun horietan. Errutinatik oso ezberdina zen dena; prentsa, argazkiak, bilerak... Eta debutaren egunaz ia ez naiz oroitzen. Momentu ikaragarria izan zen. Etxean jokatzeko nuen, lagunak bertan ziren, familia, txalo zaparradak... oso momentu polita.





gero, frontoian ez dira gauzak ateratzen. Partidu horietan, nire helburua beldurra kentzea izan zen, eta hamar pilota galdu behar banituen, galdu, baina beldurrik gabe jokatu.

Eta helburu hori lortu duzu?

Baietz esango nuke, orain ez diot hainbesteko garrantzirik ematen pilota bat galtzeari, kale egiten badut, kale egiten dut eta kitto.

Jokoa aldatu duzu?

Binakako txapelketan arriskatzen hasi nintzen, beldurra kenduta, baina txapelketa aurrera joan ahala eta partidak irabazi ahala, tentsioa itzuli zen, finala gertuago baitzegoen. Debutatu aurreko jokoa egiten dudala uste dut, ez dut aldatzeko beharrik ikusten, izan ere joko horregatik iritsi naiz hona, hori da nire jokoa.

Hala ere urduri atera zinen...

Bai bai, agian ez du ematen urduri zaudela, baina gero, partidatan, tentsio guztia ateratzen da, eta hankak ez doaz beti bezala, eskuak ere ez...

Eta azkenean galdu.

Disfrutatzeke egun bat da debuta, esnatzen zaren momentutik bertatik. Galtzeari ez nion garrantzirik eman.

BINAKAKO TXAPELDUNORDE

Geroztik binakako txapelketan hasi zinen.

Errutina hasi zen gero, lehengora itzuli nintzen. Lauzpabost partida jokatu nituen, eta asko kosta zitzaidan erritmora ohitzea. Kanpotik errazago ematen du agian, baina

Nola bizi izan zenuen finala?

Finalak ez dira egunero jokatzen. Debutean bezala, disfrutatzeke egun bat izan zen. Tentsio handiarekin noski. Labritera iritsi, takoak jarri, pilotalekua betetzen ari dela sentitu, berotzera atera eta frontoia beterik ikusi, lagunak... Debuta debuta da, baina finala ikaragarria izan zen. Eta partidak emozio handia izan zuen

Tanto bakarraren aldearekin galdu zenuten, pena?

Pena ematen du, noski, aurretik joan ginelako partida osoan. 21-20 irabazten gindoazen, eta agian ausardia gehiegirekin jokatu nituen azken tantoak, eta pilota galdu. Azkenean 21-22 galdu. Baina oroitzapen polita daukat.

Lagunek, ultzamarrek, familiak... nola bizi izan dute hau dena?

Haientzat ere handia izan da. Ez nuen pentsatzen jendea modu horretan murgilduko zenik, eta oso polita izan da niretzat.

Erreferentziarik izan al duzu profesionaletan?

Juan Martinez de Irujo izan da nire erreferentzia, eta gainera, harreman oso ona daukat berarekin. Zure "idoloa" laguna ere izatea handia da ezta? Eta hala da.

Halako pilotariei noizbait irabazteko aukerarik ikusten duzu?

Momentua iristen bada ongi etorria izanen da, baina ez dut horretan pentsatzen.

ABELTZAINZA

Pilotan eta abeltzaintzan jarraitzen duzu...

Bai, eta oso ongi datorkidala uste dut. Egund osoan pilota kontuekin arituko banintz, niri behintzat, kalte egingo lidake, eta horregatik behiekin joatearekin batera deskonektatu egiten dut. Lagun batek asko laguntzen nau, eta partidak ditudanean bera arduratzen da. Horrela pilota eta abeltzaintza uztartu ahal ditut. Egundero goizean ukuilura joaten naiz, eta gero entrenatzera. Gero etxera itzuli, bazkaldu, eta ukuilura berriz. Oso ongi datorkit hori. Enpresan ez dute arazorik jarri eta uste dut ez luketela jarri behar.



“Betidanik gustatu izan zait abeltzaintza, nahiz eta ordu asko izan, bokaziozkoa da, bestenaz ez duzu aguantatzen

Alfredo Irure Ibero 36 urteko abeltzaina da, nahiz eta mekanikako goi ziklo bat ikasi zuen. 20 urterekin ikasketak bukatu eta txikitatik laguntzen aritu den aitaren ukuiluan geratu zen finko. Gelbentzuko bentaren ondoan dago, bertan bizi dira gurasoak, eta parean, Alfredo bera, emaztea eta bi alaba txikiekin. 400 ardi eta 70 behi ditu, ordu asko eskatzen dituztenak, baina bokazioz egiten duela dio.

Abeltzaina eta artzaina aita bezala, aitarekin lan egiten duzu, beti izan nahi izan duzu abeltzaina?

Etxean betidanik izan dituzte animaliak. Nik, nahiz eta ikasten aritu, txikitatik etxean lagundu egiten nuen. 20 urte nituela ikasketak bukatu eta etxean geratu nintzen. Ez neukan guztiz argi baina mekanikako goi zikloa amaitu eta hasi nintzen etxean finko lan egiten.

Gaur egun, zailtasunak handiak dituzue honetaz bizitzeko?

Bai, leku guztietatik. Administrazioak jartzen dizkigun trabak, ingurugiroaren aldetik ere muga asko ipintzen dizkigute, eta abar. Eta honi gehitu behar zaio lan egiten dituzun ordu piloa, ez da erraza. Artzain izateak ordu asko eskatzen dizkizu, eta familiarekin bateragarri egitea, zaila da. bi alaba ditut, 5 eta 2 urtekoak, eta eskerak amari, egiten duen lanak asko laguntzen baitu.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Goizeko 6:30ean altxatzen naiz egunero, ukuilura joaten naiz eta 8:15ean etxera itzultzen naiz alaba handiak autobusa hartzen duen arte, 8:45ean. 10:00etan beste tartetxo bat hartzen dut gosaltzeko, eta berriz lanera. Bazkalostean 4:30ean hasten naiz berriro 21:00ak arte.

Egun bakoitzean gauza ezberdinak egin behar dira, batzuetan Iruñeara joan behar izaten dut eta beste batzuetan agian alabekin geratu behar izaten dut, baina orokorrean abeltzaintzak egun osoa eta asteko 7 egunak eskatzen dizkizu.

Gogorra dirudi, hala ere, pozik zaude?

Bai, bokaziozkoa da, bestenaz ezingo zenuke aguantatu. Pozik egongo ez banintz, ez nintzateke hemen egongo. Betidanik gustura egin dut lana, nahiz eta ordu asko diren.

Nolakoa da zure herrian bizi eta lan egin ahal izatea?

Hemen bizitzea baditu bere alde onak eta bere alde txarrak, kotxea behar duzu edozertarako, eta horrek mugatzen zaitu. Bestalde, ordea, atsegin duzun leku batean bizi zara, lasai, bizimodu bat da, eta gustukoa izan behar duzu, bestenaz oso gogorra egiten da.

Egun hauetan izugarritzko euriteak izaten ari dira, eguraldi honek badu eraginik zure lanan?

Ordurako kanpoan, larrean, egon beharko litzateke eta eurite honekin ezin ditugu ukuilutik atera, etxean egon behar dira.





Iraizozko Dorrean, kontu kontari Antoniorekin (eta II)

Aurrekoan Antonio Satrustegirekin haur eta gazte denborako gauzez aritu ginen. Oraingoan Dorreko nekazalgoaz arituko gara. Eta bukatzeko, Danonen pasatutako urteez zerbait, ez dugu aunitz luzatu nahi eta, nahiz oso-oso gustura egon garen Antoniorekin.

Dorrea, nekazari etxea

Dorrea **nekazari** etxea izan da beti. Guk halakoei hala erran izan diogu, lurrez bizi izan hala aziendaz. Dena dela, etxe gehientsuenak gerra aitzinean-eta, lurretik bizitzen ziren. Geroago etorri zen behi esneen garaiak. Hortaz, lehenik lurretik bizitzen ziren garaiez galdetu diot Antoniori, eta ondoren, azienda kontuez.



Satrustegi Narvaez senideak Dorreko atarian. Beheiti: Pako, Josefina eta Agustin. Goiti: Antonio, denetan gazteena.



Zaharrena eta gazteena: Josefina eta Antonio, jaietarako jantzirik.

Dorria, nekazari itxa. Zenbat erreunerri izaten ziñuten?

Hiruetan hogeita hamar. Gero egin ziuten partzelaria hori, bai bai-giñuzen iñoneko alorttoak, ttikittoak eta; eta hori lautan in ziuten. Nai giñuen bezala, nai bagiñuen bitan, bitan... Beño lautan eskatu giñuen. Lautan in ziuten, bat *Elordin*, bertzo-at Alzogaiñen, bertzo'at *Berroan*, eta *Ixesikoakin*, lau; eta **borda**, bortz. Hau Danonetik goiti da, *Muskildin*.

Zer labore biltzen ziñuten itxan?

Orduen maize ta erremolatxa. Ta arbie're eraiten zen aunditz, ta patata ta alubie. Maize'ertean alubie botatzen giñuen.

Ta pikorra?

Garie eta maize. Eta bertzeik, baba, itxerako. Bai, beti izaten giñuen zerrion'bat, eta zekorrion'bat ere bai. Orduen, zekorrion'bat, pare bat edo bizpiru hazten giñuzen eta oraindik oroitzen naiz, rekise edo izaten zen eta tortzen zen militarra ta, *este, este, este*, hartu ta fuera! Hori ere bada gero! Nai zutena pagatu ta, *a tomar por culo!*

Hemen nor ibiltzen zen?

Ostizko *Morojuan* erraten ziotena.

Rekiseko denbora haiek txarrak izain ziren.

Jode, txarrak!? Nik errate'aut, beño oraikoa ben'tzen krisia, bai, bai, ordukoa bai zela krisia!

Esan izan direzu itxe hontan beie eta abria izaten zela.

Abria itxe aundizetan izaten al zen Ireizotzen?

Ez, ez aundizetan, gutitan, gutitan.

Zenbat abre izaten ziñuten?

Guk bamabortz'bat buru-edo, haundi ta ttiki. Gero, zaldiko'atzuk izaten giñuzen. Hoiek gizentzeko kartzen giñuzen land'hoketara, soro'hoketara. Erosi, hiru lau lekutan erosi izaten giñuzen -Gipuzkoan, Baztanen...- Zortzi, hamabi buru..., hola ibiltzen giñuzen, gizentzeko.

Orduen zuek abreakin aunditz ibilli zate.

Bai, bai. E'tzazula pentsa aunditz uzten zutela, beño beti zerbait uzten zuten. Eta gauze batek pixko bat, bertziak bertze pixko bat, gelditzen zen.

Abriak non ibiltzen ziñuzten

Abriak *Muskill* aldian, oiana.

Abriak ibiltzeko afizioa handia bear da. Itxeko nor ibiltzen zen?

Oi, oi, zaarrena, Pako. Austin'e bai, beño Austiñek ez zuen hainbertze afizioik. Beño segitu bear. Hemen ezta bertzeik. Ni're ibiltzen nitzen. Bai, bai, denei yo diogu.

Abriaz gain, baziñuzten esnetako beiek. Zu ttikie ziñenian zer ziñuzten, esnetakoak edo larrekoak. Zenbat buru?

Beti esnetakoak. Hogeion'bat buru, beiek eta migeek.

Eta esnia, zenbat atratzen ziñuten?

Hirueun litro. Eta geiago're bai, allegatu giñen atratzia. Berde aunditz egiten giñuen, erregatu eta gero abonua pixko'at bota eta krixton karro berdian kartzen giñuen egunero.

Eta gaur ez'tut beieik kusten hemen.

Ez, ez, ez, gaur ez izateagatik ez'tugu ezta katuike ere. Eta zakurrik ere ez. Eta beti zakurre gustatu izan zaigu azientetako. Ba, orain ez'ta katuike ere!

Noiz kendu ziñutenazienda?

Lenik tuberkulinakin, beño berriz ere yarri giñuzen. Zarrenak jubilatuz, eta bertzok segi. Eta Austin, gaztena, zen ganaderoa, Austiñek zertzen zuen ganaderiko zera. Ta, Austiñei erran zioten (Diputazionetik), 65 urte bete beño len: Bueno, zu jubilatzen bazara, orain diru bat irabaz dezakezu. Eta erran zuen, "orain benpin tiratu bear dugu. Eta tiratu giñuen oraindik franko. Ta Austiñek izain zioten 70 urte utzi giñuelaik.

Halai're, laniako griña; oraindik ere lanian ari zate.

-Ez'tugu beldurrik izandu guk lan itteko. Ez, ez, ez'tugu beldurrik izan. Oraingoak bezala? Lanik ez dau, ez dakit zer eta badakit non. A redio!!!

Hor, etxeko ataritan ikusi ditut bertze bi aniak egurra ekarri eta lehortzen. Eta aurten ere epaitza ekarri behar omen dute. Traktorea eta karroa badute eta berek aski dira epaitza ekartzeko, ez dute inor behar oraindik.

Antonio, segi dezala *Dorrean* orain artean izan osasuna gutxienez, merezia duzue eta. Eta umorea ez ezazuela galdu! Izan ongi eta bertze bat artio. Eta besarkada estu-estu bat gainerako senideei: Josefina, Francisco eta Agustini.

DANONEN LANEAN

Esnea garrafetan biltzen zuten eta gero zisternak hasi zirenean lanik gabe gelditu zen Antonio, kamioi gutxiago aski baitzen. Beharrik Danoneko nagusietako bat eza-gutzen zuen!: Jose Maria Abizanda. Honi esker lan poli-ta opatu zuen Antoniok, atezain.

Antonio, errazu nola izan zen Abizandarekin yolasa

Bai, erran ziren: nai ba'uzu torri honara, bier berian sar-tzen aal zara, eta fijo gañera. Eta hala sartu nitzen Danonen. Eta hor pastu nittuen ha-mabortz urte, jubiletu artio.

Zu ordun artio lan aunditz indakoa, beño portero lan politte!

Mekauen dio! Nei iduitzen zaiden Danone... uff!!! Goa-ñik, bein, Danoneko itxekoandreak erran ziren, zuk sar-tu bearko'zu edo pasatu bearko ttuzu hamazapi ordu, zeatik bertzea bakazionekin yoana da ta bi porteroak in bearko ttuzie ordu hoiek denak.

Eta nik erran nion:

-Ez zaire, ez zaire neri axola erretoik ere hamazazpi ordu pasatziatik, geixagoik pas'tut nik hor, karreteran!

Ta biramonian itxekoandrea torri zelaik, galdetu ziren:

-Ongi pastu'uzu?

Eta nik,

-Eeenkantaturik, uste nuen bakazionakin negoela!

Danoneko kontu gehiago ere baitu Antoniok baina gu gara lekurik ez dugunak.



Antonio Satrustegi Narvaez, dotore-dotore jantzirik. Esker mila, Antonio hartu duzun lanagatik!

HIZTEGIA:

ERREUNERRIA. Erregunerria: lurrak neurtzeko neu-rria. Erregunerriak 898m2 ditu. Oraindik neurri hau aunitz erabiltzen da.

LABOREA: alorretan biltzen zen uzta: patata, erre-molatxa, garia... (azienda bazkatzeko dena ez, esate baterako belarra, alfalfa, zalkea...)

REQUISA: konfiskazioa. Gerra denboran eta ondo-retteoan militarrendako errekisatzen zuten azienda, hiltzeko tropari jatea emateko.

ABREA: (Berez, behor mando eta asto azienda izan liteke). Hemen behor eta zaldikoz dut galde egiten.

MIGA EDO ERGITXA: aurrerako uzten den behikume urritxe gaztea, gutxi gora behera urtetik bi-hiru urte artio, behi izan artio.

LARREKO BEHIAK: gorriak eta suizak izaten ziren eta larrean ibiltzen ziren uda eta udazkenean.

TUBERKULINA: Gobernuak behietako tuberkulosia-rekin akabatzeko kanpaina gogorrak egin zituen eta kutsu zerbait zuen guztia hiltegiara eramaten zuen. Horri deitzen dio jendeak tuberkulina. Bai euskaraz eta bai erdaraz.

BENPIN: Behinik behin.

EPAITZA: Hemengo herri guzietan, urtero etxe bakoitzarentzat eta sutarako egurra izateko, markatzen den arbola multzoa.

ETXEOANDREA: nagusia edo manatzen duena emakumea denean, kasu honetan Danonen.

HIZTUN: Kasu honetan hizketarako erraztasuna due-na. Beste adiera gehiago ere baditu hitz honek.

ESKOLETARAKO OHARRA: Horrelako hiztun onak nik eskolara eramanen nituzke ume eta gaztetxoek ikas dezaten euskaraz ongi, he-mengo azentua, hizketa moldea, esaldi abe-ratsak ...bai merezi luke saio batzuk egitea eskolan, Ultzaman oraindik gelditzen diren hiztun eder hauekin. Hiztun onak, eta gehi-entan umoreko jendea gainera.

Behetik gora: Pako, Antonio, Agustin eta Josefina, denetan zaharrena. Umorea ez zaie falta etxe honetakoei, ez horixe!



Urtebetetzeak



URKO



BEÑAT ETA UXUE



MAREN



IRANTZU




NAROA



Ipar Koreatik Siriara liburuei esker

Askotan, leku edo herri bat ezagutzeko modurik onena ez dira gida turistikoak, ezta "Callejeros viajeros" edo halako telebista saioak ere, baizik eta hango idazle baten eleberririk, poemarik, komikiarik... Eta, ez beti, baina noizbehinka norbaitek leku hauetara eginiko bidaiei buruzko liburuek ere balio dute. Adibidez, Guy Delislek, "Pyongyang" komikian inork baino hobeki kontatzen digu nolako den seguru asko munduko herrialderik ezezagun eta hermetikoenetako bat: Ipar Korea.



Pyongyang (Guy Delisle)

Kim Jong-unen herrira joan zen Komikilari kanadarra (beno, kasu honetan Kim Jong-il, bere aitaren herrira, Delislek 2002an egin baitzuen bidaia; igual dio, kontua da aitak eta semeak herria haiena dela uste dutela). Delisle, diogun bezala, Ipar Koreara joan zen marrazkilari -marrazki bizidunak egitera, hain zuzen ere-- eta Pyongyang obran hainbat aferra ikusi ahalko ditugu, egilearen begietatik: lider gorenari kultua, bere omenezko estatua erraldoiak, metro geltokiak -erraldoiagoak, garbiak, distiratsuak, jauregiak bezalakoak, aldi berean babesleku nuklear gisa balio duten metro geltoki horiek- hori guztia, bai, baina baita hango benetako jendearen eguneroko bizitza ere: frustrazioa, pobrezia, goi-beltasuna, beldurra...


Komikiaren kontrazalka dion bezala: "Ipar Koreari buruz egin den dokumentalik hobereena komiki bat da" (agian, Delislek komikiaren bigarren partea egin beharko luke, Kim Jong-un eta Ipar Ameriketako King-Jong un, hots, Donald Trump elkartu ondoren, baina ez dakigu umorezko komikia ala beldurrezkoa izango litzatekeen).

Dena den, ez genuen Pyongyang liburuaz idatzi nahi, edo ez soilik, ezta Ipar Koreaz ere, Siriaz baizik. Zer gertatzen da Sirian? Zergatik hango guda? Zergatik guda guztiak? Non dago zehazki Siria?...

Akim ihesi (Claude K. Dubois)

Sarritan ikusten ditugu albistegietan Siriako irudi gordin horiek, bonbardaketak, eraikin suntsituak, jendea korrika ume zaurituak besoetan daramatzatela... eta bertan zer gertatzen den jakin nahian aritzen, zergatik, nortzuk diren onak eta nortzuk gaiztoak...

Akim ihesi liburuan Claude K. Dubois ilustratzaile belgikarrak sinatua, errepikatzen dira irudi hauek, kasu honetan paperezko fotograma gisakoak dira, arkatatzaz margotuak eta testu txiki batzuekin lagunduta. Akim ume bat da (eta komikia umeentzat bideratua dago) eta bere istorioari esker jakingo dugu gudan, zalantza horiek, gure zalantzek, ez dutela garrantziarik, guda beti heriotza eta gorrotoa baino ez dela. Beti eta leku guztietan. Izan ere, istorioa ez dago Sirian kokatua. Egileak margotu zuen albuma Siriako guda bere unerik kritikoenan zegoenean egin zuen, bai, eta ziurrenik horregatik, baina edozein herritan gerta liteke.



Eskua bete izar (Rafik Schami)

Akim ihesi liburuan Mila gau eta bat gehiago aipatzen da. Klasiko honi eta, oro har, ahozko literaturari asko zor dio gure hurrengo idazleak, Rafik Schami siriarrak.



Gazte eleberririk zoragarri baten egilea da Schami: Eskua bete izar.

Damaskon, Siriako hiriburuan kokatzen da istorioa, orain dela hamarkada batzuk. Eleberririk nerabe baten egunerokoa kontatzen du. Idazleak, protagonistak bezala, gazte delarik, egunkari-grafiti bat idazten du hiriko hormetan protagonistak, hainbat bidegabekeri salatuzko: auzokide batzuen desagertzea edota poliziaren gehiegikeriak. Hori guztia, Schamiren ukitu kutunaz kontatzen digu. Askatasunaren bilaketa da, azken batean, eleberririkaren gaia, literatura eta amodioaren bidez egina. Eta Siria horri esker, duela urte askoko Siriari esker, jakingo dugu zertan den gaurkoa.

Literaturak, liburuak, lagungarri dira mundua eta bere gatazkak ulertzen saiatzeko. Eta denok ulertzeko moduan, umeentzat (Akim ihesi), gazteentzat (Esku bete izar) eta helduentzat bideratutako irakurketka baitira gaurkoak.

Hirurak, jakina, Ultzamako liburutegian zuen zain daude!



2018ko martxoa.

Gure alderdian, martxoan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

IMOTZ

ZARRANTZ

Julen Alvarelos Telletxea, Leire eta Jaimereren semea martxoaren 31an jaio zen Zarrantzko Apezetxean



Leire eta Jaime, Julen txikiarekin

Ezkontzak:

Martxoan, guk dakigula, ez dugu ezkontzarik izan.

Heriotzak:

ATETZ

BEUNTZA

ROMAN IRURITA IBARROLA, ZURGIÑENeko SEMEA, MARTXOAREN 4AN HIL ZEN, 90 URTETAN.



Roman Irurita

ULTZAMA

GORRONTZ

VICTOR ELIZONDO GERENDIAIN, DORREKO NAGUSIA, MARTXOAREN 8AN, 93 URTETAN.



Victor Elizondo

Gure oroimenean izanen zarete



NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
 Tailer mugikorra
 Pneumatikoen aldaketa
 Zulatutako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Aizarotz (Baaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
 pneumatikoak konpontzera
 -Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
 -Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com



ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

IV. ARGAZKI LEHIAKETA



1. SARIA: 300€

2. SARIA: 200€

3. SARIA: 100€

PULUNPEK argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.

Lehiakideak: Hemen bizi den edonork har lezake parte, baina gutxienez urtebete behar du hemen bizi dela. Errolden bidez ziurtatuko da baldintza hau.

Argazkiak aurkezteko epea: maiatzaren 22a azken eguna.
Lehiakide bakoitzak bi argazki bakarrik aurkez ditzake.

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara, eta emailez igorriko dizkiogu: ametzake@gmail.com